

**1999KO MAIATZAREN 27AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO  
BATZARRALDIAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udalerria.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeita zazpia

**HILABETEA:** Maiatza

**URTEA:** Mila bederatzehun eta laurogeita hemeretzia

**HASIERAKO ORDUA:** Hemeretziak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**LEHENDAKARIA:** Jon Jauregi Bereziartua jauna

**BILDUAK:** Ana Isabel Asla Egialde  
Arantza Aseginolaza Azkargorta  
Emilio Vallés Pascual  
Patxi Plazaola Muguruza  
Jose Antonio Guirado Tristán  
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria  
Joxe Arotzena Irastortza  
Jose Luis Elorza Mugica

Pablo Parra Moreno  
Jose Ignacio Insausti Mugica  
Idoia Arratibel Begué  
Julio Herreros Serna  
Eduardo Fernandez Cerdeiriña

**ETORRI GABEAK:** Miren Arrate Izagirre Iriondo  
Jose Maria Sarasola Villahoz  
Alfonso Segade Gonzalez

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

## **1- ACTAS ANTERIORES.**

1999ko apirilaren 22ko eta 29ko akten berri eman ondoren, aho batez onartu dira inolako eragozpenik ez dagoenez.

## **2- KREDITU ALDAKETAK**

Alkate (EAJ) jaunak proposamenaren berri eman du: “Udal honen aurrekontuko 1.50.703.511.00.01 “Renfe Karga Nasa” kontusailean aurreikusia dagoen kreditua, onartu beharreko gastuak estaltzeko adinakoa ez dela ikusirik Alkatetza honek Udalbatzarrari ondorengo kreditu-gehigarrien espedientearen onespena proposatzen dio:

Aipatutako kontusailean Renfe karga nasarako egun 7.300.000 pezeta daude, aldaketa 27.035.000 pezetakoa da. Horren ondorioz kontusail horretan gelditzen den behin-betiko kreditua 34.335.000 pezetakoa da.”

Alkate (EAJ) jaunak: “Aldaketa hau orain egiteak duen arrazoia zera da: desjabetza espedientea asko luzatzea zihoan, izan ere Renfek aurreko jabeari terreno horiek errebetsioan eskaini behar zizkion eta suposatzen zen gaia epaitegietara joango zela. Zorionez, negoziaketa batzuen ondorioz, astelehen honetan sinatu zen dokumentu batean konpondu zen eta lehenbailehen okupazio-aktak sinatuko direnez, prezio zuzena ordaindu beharrean gaude.

1998ko likidazioan 60 milioi alde daukagu eta diru horretatik Renferen prezio zuzena ordaintzeko 27 milioi erabiltzea proposatzen da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eduardo Fernandez (EB) jaunak: “En otras ocasiones en los que la modificación afectaba a partidas o a realización de algún tipo de actividad u obra en la que nuestro grupo ha estado de acuerdo, en la mayoría de los casos lo he apoyado, y este podría ser uno de ellos, ya que se trataba de trasladar el muelle de carga a otro sitio. Por seguir el hilo de lo que he venido manteniendo respecto a estas modificaciones, llama la atención el hecho de que se presupueste una cantidad partiendo de la base de que era un tema que había que negociar, y en la partida se reflejaba una cantidad sin ningún tipo de exactitud. Pensamos que hubiera sido mejor no presupuestarla ya que se ha visto claramente que la cantidad resultante es bastante superior. Vamos a abstenernos porque la falta de previsión nos lleva a modificar la partida.”

PP, EA eta PSE-EEko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Andoni Antxia (HB) jaunak: "Kasu batzuetan onar daiteke kreditu-aldaketa egitea, baina kontuan izanda hasiera batean proiektu honen aurka azaldu ginela eta horrek proiektu horri bultzada bat ematea dakarrela eta guretzat helburuak betetzen ez direnez, guk aurka bozkatuko dugu."

Alkate (EAJ) jaunak: "HBren arrazoiak ulertzen ditut. HB ez dago ados proiektu horrekin, beraz aldaketarekin ere ez."

No entiendo muy bien lo que ha dicho el representante de IU. Las cantidades son las mismas. El convenio que luego se presenta para su aprobación es un refundido de los dos anteriores. La cantidad ya estaba definida en el año 95, y no ha habido incremento."

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ, PSE-EE, EA, PP)  
Aurkako botoak: 2 (HB)  
Abstentzioak: 1 (IU)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da Alkate jaunak kreditu-aldaketari buruz egindako proposamena.

### **3- HITZARMENAK**

#### **a- Renferekin sinatzeko hitzarmena onartzeko proposamena.**

Renferekin sinatzeko hitzarmenaren edukia azaldu ondoren, Alkate jaunak esaten du lehenago onartutako bi hitzarmenekiko dagoen aldaketa bakarra, karga-nasaren kostua dela. Kostua eguneratzearen ondorioz, lehen 80 milioiko kostua zuen eta orain, nahiz eta 90 milioikoa izan, negoziatu ondoren karga-nasa 83 milioi ordaindu beharko dugu."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eduardo Fernandez, EBko ordezkariak abstenitu egin behar dela esan du.

PP, EA, PSE-EE eta EAJ ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Andoni Antxiak HBko zinegotziak esan du lehengo puntuan izandako jarrera bera dutela orain ere.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta honako emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ, PSE-EE, EA, PP)

Aurkako botoak: 2 (HB)

Abstentzioak: 1 (EB)

Horren ondorioz, gehinego absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

**Lehenik.** Renferekin sinatu beharreko hitzarmenaren edukia onartzea. Testu honek, 1995eko maiatzaren 4ko eta 1998ko otsailaren 24ko hitzarmenak bateratzen ditu.

**Bigarren.** Alkate jaunari baimena ematea, erabaki hau formalizatzeko behar diren dokumentuak sinatzeko.

b- Txintxurreta familiarekin sinatzeko hitzarmena onartzeko proposamena.

Alkate (EAJ) jaunak: “Hau da hirigintza batzordean tratatu dugun gaia. Dakizuenez, 1998an Txintxurreta familiarekin hitzarmen bat sinatu genuen, baina ez genuen bete, zeren eta hitzarmen horretan aipatzen ziren lurzatiak baino gehiago erabili ditugu. Familiak borondate ona azaldu du eta ez du prozesua oztopatu eta borondate horretaz baliatuz beste hitzarmen berri bat egin dugu. Hitzarmen horren edukia honako hau da:

“1- Beasaingo Udalak aurreikusia duela “Igartzako Txaraka” izeneko lursailetan industri sektore berria sailkatu, kalifikatu eta ordenatzea eta horretarako behar-beharrezkoa denez lehen aipatutako lursailei Chinchurreta ahizpena den 2.000 metro karratuko lursail bat eranstea, beraiekin 1999ko abuztuaren 3an hitzarmen bat sinatu zen aipatu terrenoa Beasaingo Udalarena den 3.000 metroko terrenoarekin trukatzeko. Duela gutxi egindako neurkaten arabera, aipatu hitzarmena trukatu behar diren metroekiko aldatu egin behar da, izan ere trukatu behar diren metroak hauek dira: 2.363 Chinchurreta ahizpenak eta 3.544,5 Udalarenak

2- Zuntzunegi familiarekin sinatutako “Igartzako Txaraka” izeneko terrenoaren salerosketa kontratuaren arabera, terreno horren zati bat salerosketa eskritura publikoaren bitartez eskuratzen da eta beste zatia berriz

1 Sektorearen birtzatiketa proiektua erregistratu ondoren truke-eskrituraren bitartez.

3- Udalak Cinchurreta ahizpekin trukatu behar duen lursaila, bat dator Zuntzunegi familiarengandik baita ere trukearen bidez eskuratu behar duen lursailarekin. Horren ondorioz, Cinchurreta ahizpekin sinatu eta lehen aipatu den hitzarmena bermatzeko, bi aldeek dokumentu hau idatzi dute ondorengo

### **HITZBAKETEKIN**

**LEHENIK.** 1998ko abuztuaren 3ko hitzarmenaren lehen hitzbaketa aldatu egin da. Jarraian honela izango da:

“Beasaingo Udalak eta Txintxurreta familiak, honekin batera doazen planoetan adierazitako bakoitzari dagozkion aipatutako zatiak trukatu egiten dituzte, Txintxurreta familiak tratura ekarritako lursaila 2.363 metro karatuko azaleraduna izanik eta Beasaingo Udalak ekarritakoa berriz 3.544,5 metro karratuko azaleraduna izanik.”

1998ko abuztuaren 3an sinatutako hitzarmenaren gainerakoa indarrean gelditzen da.

**LEHENIK.** Beasaingo Udalak baserriaren urak jasotzeko bere kontura ur zikinak isurtzeko putzu beltza egiteko konpromisoa hartzen du kontuan izanik baserri horretako egungo iharduerak.

**BIGARREN.** Beasaingo Udalak, Txintxurreta baserriak duen tamainagatik, bi etxebizitza egiteko aukera aitortzeko konpromisoa hartzen du. Hori horrela izanik jabegoaren zatiketa horizontala egin beharko litzateke eta Jabetza Erregistroan inskribatu.

**HIRUGARREN.** Goiko lerrokadan aipatutakoa formalizatu ondoren eta Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen 86. artikulua araberak, baserriaren terrenoetan bifamiliako etxebizitza berria egitea onartuko litzateke, beti ere aipatutako artikuluan xedatutakoa eta mota honetako eraikin eta ihardueren ezaugarriak betetzen badira.

**LAUGARREN.** Zuntzunegi familiarekin truke-eskritura egiten denetik sei hilabeteko epean Cinchurreta ahizpekin truke-eskritura sinatzen ez bada, Udalak Cinchurreta ahizpei BOST MILIOI PEZETAKO (5.000.000) kalteordaina emango die, horren erruduna Udala izaten bada.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez erabaki hau hartu da:

**Lehenik.** Txintxurreta familiarekin sinatzeko hitzarmenaren edukia onartzea.

**Bigarren.** Alkate jaunari baimena ematea, erabaki hori formalizatzeko behar diren dokumentuak sinatzeko.

**4- ESKAERAK AURKEZTEA.** Tasetan laguntzak eskatzeko epea irekitzeko proposamena.

Jose Luis Elorza (PSE-EE) jaunak, gizarte-ongizateko proposamenaren berri eman du: "Tasen arloan udal-laguntzak eskatzeko epea hiru astekoa izango da, erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

**5- ZERBITZUAK ADJUDIKATZEA.** Eguneko Zentrora zainketa-zerbitzua adjudikatzea.

Alkate jaunak, Jose Luis Elorza, gizarte-ongizateko batzordeburuari hitza eman eta honek honela dio: "Eguneko Zentrora zainketa-zerbitzua kontratatzeko oinarriak onartu, argitaratu eta aurkeztutako eskaintzak aztertu ondoren, adjudikatzeko proposamena dator. Aurkeztutako eskaintzak bost izan dira, baina horietatik bat epez kanpo aurkeztu da, beraz lauen eskaintzak bakarrik aztertu dira. Eskaintza horiei buruz teknikariek egindako txostena hau da:

"1- **ZU ETA BLOK** enpresa

Baloratu diren ezugarriak:

a- Proposamen ekonomikoa

**2.000** pezeta/orduko/zaintzaleko

2050 lizitazio prezioa - 2.000 aurkeztutako prezioa=  $50 \times 0,1 = 5$  puntu

b- Esperientzia

b1) Agureen egoitzako esperientzia..... 3 puntu  
Etxez etxeko laguntza zerbitzuko esperientzia.....3 puntu

b2) Agureen egoitzako esperientzia ..... .. 2 puntu  
Etxez etxeko laguntza zerbitzuko esperientzia.....4 puntu

c- Prestakuntza osagarria..... 0 puntu

**GUZTIRA 17 puntu**

**OHARRAK**

Enpresa honek ez du egiaztatzen langileen prestakuntza. Ez da bermatzen eguneko zentrorako langileek zein baldintza beteko dituzten (titulazioa, euskeraren ezagupena eta Beasainen erroldatua izatea).

Esperientzia ere ez du frogatu.

2- **LENDING SERVICE** enpresa

a- Proposamen ekonomikoa

1.702 pezeta/orduko/zaintzaleko

2050 lizitazio prezioa - 1.702 aurkeztutako prezioa=  $348 \times 0,1 = 34,8 =$   
25 puntu.

b- Esperientzia

b1) Agureen egoitzako esperientzia..... 3 puntu  
Etxez etxeko laguntza zerbitzuko esperientzia.....3 puntu

b2) Esperientzia..... .. 8 puntu

c- Prestakuntza osagarria..... 0 puntu

**GUZTIRA 39 puntu**

**OHARRAK**

Enpresaren materialaren deskribapena eta enpresaren antolakuntza eskema ez du azaldu.

Esperientziarena ez da kontuan izan aurkeztu duen dokumentazioan, esperientziaren denbora ez delako egiaztatzen.

Prestakutzaren aldetik esan, aitortzen duen prestakuntza bakarrik dela gaur egungo eta etxetz etxeko langilegoarena. Ez da bermatzen eguneko zentrorako langileak zein baldintza beteko dituen (titulazioa, euskararen ezagupena eta Beasainen erroldatua izatea).

### 3- **EULEN** enpresa

#### a- Proposamen ekonomikoa

1.800 pezeta/orduko/zaintzaleko

2050 lizitazio prezioa - 1.800 aurkeztutako prezioa=  $250 \times 0,1 = 25$ .

#### b- Esperientzia

b1) Eguneko Zentroetan esperientzia.....	3 puntu
Agureen egoitzako esperientzia.....	3 puntu
Etxebizitza babestuetan esperientzia	3 puntu

b2) Esperientzia..... 8 puntu

c- Prestakuntza osagarria..... 4 puntu

**GUZTIRA** ..... **46 puntu**

### **OHARRAK**

Esperientzia eta langileen prestakuntza egiaztatu gabe daude.

Enpresa hau gizarte segurantzako obligazioak ez ditu egunean, zorrak bait ditu, nahiz eta hauek Gipuzkoa mailan ez izan.

### 4- **GURE ARGIA** enpresa

#### a- Proposamen ekonomikoa

1.800 pezeta/orduko/zaintzaleko

2050 lizitazio prezioa - 1.800 aurkeztutako prezioa= 250 x 0,1= 25 puntu

b- Esperientzia

b1) Etxez etxeko esperientzia.....	3 puntu
Eguneko Zentroko esperientzia	3 puntu
Etxebizitza babestuka .....	3 puntu

b2) Esperientzia..... 8 puntu

c- Prestakuntza osagarria..... 4 puntu

**GUZTIRA .....** **46 puntu**

**OHARRAK**

Aurkeztutako guztia kreditatu egiten du.

Txosten hau Beasainen ematen da 1999ko maiatzaren 25ean

Karmele Elola

Itziar Arostegi”

Jose Luis Elorza (PSE-EE) jaunak: “EULEN eta GURE ARGIA enpresak puntuazio berdina dute, baina GURE ARGIA enpresak esaten duena egiaztatu egin du, eta EULENek berriz ez eta gainera gizarte segurantzarekin zorra duela azaldu du eta beharrezkoa da gizarte segurantzarekin eta haziendarekin ordainketak egunean izatea. Beraz, gizarte-ongizate batzordearen proposamena da, eguneko zentrorako zainketa-zerbitzua GURE ARGIA enpresari adjudikatzea, berak duelako puntuazio gehiena eta dena egiaztatu duelako.

Existe la posibilidad de alargar el proceso, solicitando a las distintas empresas documentación complementaria y acreditativa de lo que presentan, sin embargo se ha considerado que todas ellas han tenido los mismos plazos y las mismas oportunidades.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azadu dira:

Eduardo Fernandez (EB) jaunak: “Cuando se aprobaron las bases ya manifesté mi opinión en contra y ahora me reafirmo en ello. Respecto a la valoración decir que al haber dos empresas que presentan la misma puntuación, se debería haber solicitado documentación complementaria, o si el pliego indica el deber de estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias y fiscales, se debería de haber dejado constancia de ello en el informe, para evitar equívocos.”

PP, EA, PSE-EE eta EAJko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Andoni Antxia (HB) jaunak: “Bere garaian oinarriak aurkeztu zirenean gure aurkako jarrera azaldu genuen, uste dugulako zerbitzu horiek Udalak zuzenean eman behar dituela. Enpresak aurkeztutako eskaintzari buruz esan, paperak edozein gauza jaso dezakeela, baina funtzionamendua praktikan ikusten da, beraz ondo egongo litzateke sei hilabeteko froga-epea ematea. Gure aurreko jarrera mantenduko dugu.”

Jose Luis Elorza (PSE-EE) jaunak: “Yo creo que hemos sido muy rigurosos al elaborar la propuesta precisamente para evitar cualquier tipo de impugnación. Si alguien tiene alguna duda de que en este proceso ha habido algún intento de manipulación o de trato de favor hacia alguna empresa le agradecería que lo manifestará públicamente. Hemos podido cometer errores, pero creo que estos han sido más por el exceso de ser rigurosos que por todo lo contrario. La valoración se ha efectuado por los técnicos, precisamente para evitar lo anterior.

Azpikontratazioa epe motzerako egin da eta gure eskuetan dago arazoak badaude kontratua deuseztatzea. Aurkeztutako enpresak bat izan ezik ezagutzen ditugu. Adjudikatua suertatu den enpresa, Legazpiko eguneko zentroko ardura du eta esan digute Legazpiko zentroko zerbitzu-kalitatea eredutzat har daitekela.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta emaitza hoako hau izan da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ, PSE-EE, EA, PP)

Aurkako botoak: 3 (HB, EB)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin eguneko zentrorako zainketa-zerbitzua GURE ARGIA enpresari adjudikatu zaio, baldintza pleguaren arabera.

**6- GOIEKI.** 1998ko ekitaldiko memoria, balantzea et irabaz eta galeren kontuak onartzeko eta ordezkaria izendatzeko proposamena.

Alkate (EAJ) jaunak: “Este es un tema de Goieki, donde la propuesta que se formula ya se ha aprobado, con la abstención de HB, por no estar de acuerdo con el incremento del IPC en la aportación de los Ayuntamientos al presupuesto de GOIEKI para este año. El sábado se celebra la Asamblea General para aprobar la memoria, balance y cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio de 1998, siendo los acuerdos de los Plenos vinculantes y precisando además nombrar un representante en la Asamblea, a lo cual estoy dispuesto, que de traslado del acuerdo plenario.”

EB, PP, EA, PSE-EE eta EAJko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

HBko ordezkariak abstenitu egingo direla esan dute.

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 13 (EAJ, PSE-EE, EA, PP, EB)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 2 (HB)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin erabaki hau hartu da:

**Lehenik.** 1998ko ekitaldiko memoria, balantzea et irabaz eta galeren kontuak onartzea.

**Bigarren.** Jon Jauregi Bereziartua, Alkate jauna ordezkaria izendatzea GOIEKIkiko batzarraldian parte hartzeko.

## **7- ESKAERAK ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean honak hauek egin dira:

AGURRA

Emilio Vallés Pascual (EAJ) jaunak: “Es la despedida como concejal. Cuando hace dieciséis años el PNV me pidió que fuese en las listas, no solamente por afinidad política sino por las ganas de trabajar por el Ayuntamiento de Beasain, acepté. Quiero agradecer a los cuatro alcaldes con los que me ha tocado trabajar su confianza en mí, y a Jon Jauregi en particular

la oportunidad que me ha dado de ser presidente de la comisión de servicios y de Sasieta. Decir en este sentido que la mancomunidad de Sasieta es en estos momentos pionera en reciclaje y se está negociando con el EVE una planta de gasificación que la pagará totalmente el EVE. Agradecer a todos la convivencia que hemos tenido y pedir al próximo Ayuntamiento que piense en los vecinos porque Ayuntamiento somos todos. Gracias. Eskerrikasko.

Alkate (EAJ) jaunak: “Mil gracias, aunque también te las daremos en otro momento y de otra manera como grupo político.

Beste zinegotziei esan, hemen bizi izan ditugun egoerak kontutan izan da, baikorrak izan direla. Udal ordezkariok herritarren islada garbia gara eta denoi mila esker denon artean egin dugun lanagatik. Emilio esan duenaren ildotik espero dut legealdi honetan izan dugun harremana gehiago sakontzea eta ia denon artean herri hau normalizatzeko gai garen .”

Eta tratatzeko beste gairik ezean bilera gaueko zortzietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi et sinatu dut.